



Arantxa Urbe

Hezitzailea eta Hik Hasi-ko kidea

Txikiegi sentitzen garenerako zaintza

Begira, ama, zer gertatu den, txikiegia naiz ni eskolara joateko!», dio 3 urte bete berriak dituen neskatilak, bere buruari oinetatik go-
ra begira ari zaiola, bere izatearen benetako neurria hartu nahian bezala. Ama ilea biltzen ari zaio mototsa apainean, besteetan baino ur-
duriago. Azken egunetan hainbeste aipatu duten eguna iri-
tsi da: eskolan hasteko eguna.

Orain arte, neskatilak etxeko goxotasunaz gozatzeko au-
kera izan du, lehen urtea betetzera doan anaia txikiarekin
batera amarekin egon baita etxean. Tarteka, anaia nagusiari
laguntzen, eskolaren bueltan ibili da gurasoekin. Hortaz,
ezagutzen du eskola, urrun samarretik.

Gaur, ordea, anaia txikia etxean utzi du eta bera da anaia
nagusiarekin eskolan sartu-
ko dena. Eskola-bizitzaren
hasiera samurragoa izan
dadin, egokitzen proze-
sua hasiko du amarekin.
Han, bizi den herria txikia
izanik, plazan jolas-lagun
dituenak topatuko ditu.
Hori bere alde. Eskolara
egokitzeak beste hamaika
alde ditu, ordea.

**Hezitzaile gisa bizi izan dugunok ere badakigu zeinen intentsitate handi-
koa den prozesua.** Neska-
toaren amari malko bat
irristatu zaio alaba eskolan
utzi duenean. Ongi egongo
dela jakin arren, ezin emo-
zioari eutsi. Gogorra egin
zaio. Eta ahapeka esan digu
zein desberdina den irakas-
le edo ama gisa bizitzea
prozesua. Ongi pentsatuta,
egia esan, egokitzenare-
na izan liteke eskolan gerta-
tzen den prozesu bizieneta-
ko bat.

Lankidearekin aritu naiz
ezbaian 'egokitzena' ote
den prozesua izendatzeko
modurik egokiena. Hark

baietz, finean haurrek, etxekoek, hezitzaileek, eskolak... de-
nek egoera berrira egokitu behar dute. Ezetz esan diot nik,
beste hitz egokiago bat aurkitu beharko geniokeela. Finean,
neska-mutilek ez luketelako eskola eredu zaharkitu honeta-
ra –kontuan hain gutxi izaten dituen 'eskola' esaten diogun
instituzio honetara– egokitu beharko.

**Gaur egun, gehiago edo gutxiago, eskola gehienek dute
kontuan une hori. Nahikoa orokortuta dago haren zain-
tza, «egokitzen» prozesuen bidez eskolan pixkanaka
sartzekoa eta ikasleek ahalik eta trauma gutxien izate-
koa.** Zaintza hori, batez ere, eskolara lehen aldiz etortzen di-
renean egiten da, txikitan. Salbuespen handiagoa dira, bai-
na, eskola ibilbidean zehar beste adin batzuetako

neska-mutientzat aldake-
tak zaintzeko martxan jar-
tzen diren prozesuak.

Ederra litzateke ikasleek zi-
kloa eta etapa aldatzen du-
tenean, irakasle berria du-
tenean, talde nahasketa
dutenean, hala nola erai-
kuntzaz aldatzen direnean
eta, zer esanik ez, praktika
metodologiko eta pedago-
gikoak aldatzen ditugune-
an, haiez ohartzea, kon-
tziante egitea, eta txikiekin
egiten dugun gisan, edo-
zein adinako neska-muti-
lekin, adin bakoitzak di-
tuen ezaugarri eta
beharren arabera, une ho-
riek ere zaintzea.

Izan ere, ikasle txikiene-
kin orokortu den egokitza-
pen prozesuaren helburu
behinena konfiantzaren bi-
dez segurtasun emozionala
eta atxikimendua lortzea
da. Jakin badakigulako kon-
fiantza eta segurtasun hori
dela eskolan eraiki nahi du-
gun ikas-irakas jardunaren
oinarria. Zenbat aldiz ez ote
garen gu ere, neskatia be-
zala, txikiegi sentitu? •



Eskolara egokitzeak hamaika ertz ditu. Guillaume FAUVEAU